

# Noiz hasi zen aztia jendea harritzen



# Noiz hasi zen aztia jendea harritzen

**i r u d i a k :**

I R R I M A R R A i l u s t r a z i o a

**i p u i n a :**

Y o l a n d a A r r i e t a

**i t u r r i a :**

J o s u Z a b a l e t a

Z e n b a i t i p u i n h e r r i k o i



**BOOKTEGI**

Euskal literatura denon eskura

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

Magia dendetan saltzen jarri aurretik, norberak egin behar izaten zuen. Asko eta asko ez ziren horretarako gai ikusten.

—Ez dagoena azaleratu? —esaten zuten—. Hori ezin da egin!  
Haur batek entzun zien.

—Nik nahi dut —esan zuen.

—Hara! —azaldu zuen sinesgogor batek—.

Hemen gure jainko txikia!





Burla-hitzak ziren, baina txikiak ez zion jaramonik egin. Herriko jakintsuarengana joan, eta magiari buruzko liburuak eskatu zituen.

—Letra larriunik ez daukagu —esan zion hark, haurraren tamainari adi.

—Letra xehez ere badakit irakurtzen —erantzun zuen txikiak—. Magia egiten ikasi nahi dut.



Jakintsuak barrura sartzeko gonbita egin zion.

—Zer dagoen erakutsiko dizut, eta zeuk aukeratu. Baimena baduzu, ezta? Haurrak hiru baimen erakutsi zizkion jakintsuari:

—Gurasoenak ere ekarri ditut, ahalik eta liburu gehien eramateko.

—Zure bila etorriko dira gero?

—Astoa ekarri dut, liburuak gainean eramateko.



Jakintsuak ez zuen ezer gehitu. Ustez irakurterrazenak atera zituen eta haurrak guztiak hartu zizkion.

Aise eta erraz eraman zituen etxera, astoaren gaineko zakutuetan. Eta aise eta erraz irakurri zituen denak, hiru aldiz.

Lehenengoan, ez zuen tutik ulertu. Bigarrenengan, magia egitea jolas egitea zela ikasi zuen. Hirugarrenengan, asko entrenatu beharko zuela jabetu zen, izan ere, asmo handia baitzuen: jendea harritzea.



Aitonaren urtebetetzea iritsi zen,  
baina ezin eguna ospatu, aitona  
egun batzuk aurretik hil zelako.  
Sukaldean zeuden denak.  
Haurrak zurezko koilara astindu  
zuen airean, aulkira igota:  
—Atela-matela-tela!—oihukatu  
zuen, buruan galdara eta soinean  
aitaren brusa jantzita.



Mahukaren barruan begiratu, eta zazpi harri biribil atera zituen. Aulkitik jaitsi eta etxeko bakoitzari bana eman zion eskura, zera esanez:

—Harria ondo-ondo gorde aitonaren omenez, harria ondo-ondo gorde aitonaren omenez, harria ondo-ondo gorde aitonaren omenez...

Etxekoek esker onez jaso zuten oparia, eta kolkoan gorde zuten aitonaren oroigarria.





—Atela-matela-tela! —oihukatu zuen berriro haurrak, aulki gainera igota—. Behin galdu zena ager dadila!

Kolkoan eskua sartu, eta zer aterako? Amonaren titarea, amaren sostena, aitaren pipa, bikien kika eroriak eta nebaren kanika.

—Hara! —esan zuten guztiek, negarrez eta barrez, zeinek berea jaso ahala.



—Atela-matela-tela! —oihukatu zuen haurrak, azken aldiz—.  
Jo dezala atea gure lagun zaharrak!

Neba-arrebak korrika abiatu ziren atea irekitzera.

—Pintto! —esan zuten txakurra besarkatuz—. Uste genuen  
aitonarekin batera galdu zinela!



Iluntzean, amonak esan zion iloba iaioari:

—Zeharo harritu nauzu, laztana. Azti handia egingo zara, ziur nago.

Haurrak entrenatzen jarraitu zuen, irrika biziz, baina oraindik inork ez daki nola demontre agertu zen Pintto atean...

(Berak bai, baina ezin da kontatu; magia galduko litzateke, bestela...)





# BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)